

EUSKALDUN AUSTRALIATARRA

GUDA-OSTEAN

España'ko guda-ostean, Euzkadi'tik, batez be Bizkaï'tik, Australia'ko lurralde urrifietara aldra ugariak joan ziran.

An gozaki-kañaberea ebagiterako langilleak bear ebezan. Gero lan au egiteko mekanikazko lana-besak ugaritu ziran eta askok atzera etorri-bearra izan eben.

Batzuk aberastu be egin ziran, solo aundiak erosi ebezan eta bertan dagoz.

URBERUAGA

Oneitariko bat da Urberuaga'tar Alberto. Korte-zubiko baserririk onenean, Olalde iturri-ondoan jaioa. A lbaïter izateko ikastaroa egin eban Zaragoza'n, bañña gero Australia'ra joan zan.

Zergaitik eta zertarako?

Arrazoi argi ta tolesbakoak egozan. Andragai eukan an. Au euskaldunen alabea zan. Antxe egin eben euren abia eta eta ezkondu be egin ziran. Eta seme-alabak azi be bai.

Oneik ona etorri dira eta Bilbo'n dagoz.

JOAN-ETORRIA

Ara zer diñon Urberuaga'k: «Oindiño buruan daukot lenengo joan-aldia. Genova'tik Brisbane'ra. itxas-otziak ogei ta lau egun egin ebazan».

Urberuaga'tar Alberto gizon ikasi ta eskolatu da eta, jakiña, Australia'ren aldekoa.

Emen, Bizkaia a, bere sorterrian, illebeta batzuk daroaz baiña Australia'ko gauzai buruz gartsu egiten dau berba, batez be an dauken kirol-zaletasunari buruz. Australia'tarrak Olinpo-Jokoetan ainbat do-irabazi dabezela gogoratzen dausku. Ondar-tzak be luze ta zabalak daukez kirol jarduketan ekiteko.

EUSKALDUNAK

Queensland inguruan euskaldunik dagoan itaundu neuntson. Baietz erantzun eustan. Bengoa, Etxenike, Gabiola, Mujika, Bilbao, Artiatx, Mugira... sendiak ezagunak ditu eta ondo bizi dirala drño.

Gernika'ko Euskaldun Australia'tar astun bat be aitatu genduan oraintsu, 200 kilo dituan Zipri. Bai, etxalde eder bat dauko eta beste bateri irabaziak ateraten dautsoz.

ZAMEZA'TARRAK

Zameza anaiak, kortezubikoak, entzutetsuak dira. Kui-aztegia ta okelatokia daukez. Zameza'tar Gotzone'k bera Australia'rantz abiatur zanean joan-aldirik luzeena egin ebala drño. Lenengo urte-naldia izan zan. Gernika ta Mujika'tik 24 euskaldun joiazan, amerikatarren guda-ontzi guztiz astitsu baten. 40 egun egin ebezan arantza. Australia'ra eldu eta lenbaitlen lanean asi ziran. 1958n. urtean iru liberako alogora euken (libera batek 168 pezeta balio-ebazan). Emen injinieruak be ez eben irabazten orrenbeste. Norberetzat artutako lanean ekin ezker, eguneko 5 edo 6 libera be atera eikezan.

Zameza'tar Jabi ezkonge bizi da. Joan dan urtean Kortezubiko Mister Mutil-zar izendatu eben. Eta beti umore onaz, beti bearrean. Irabazari buruz ara zer diñon: 1964'an illean 1220 pezeta irabaziko nituan eta Australia'n ori egun baten irabazten zan. Gotzone'k be antzeko zerbait diño: Nik, Gernika'n bizi-leku bat erosteko urte biko alogorak bear nituan...

ORAIN

Orain Australia'n, toki guztietan lez, «inflazi-ño»a dago eta irabazi, gitxi gorabera emen lez egiten da.

Ez da diru-bidea ara joatea. Eta itzi be ez dabe egiten, sendiak alkartzeko izan ezik.

EUSKEREA

Eta euskaldun Australia'tar oneik galdu ete eben euskerea?

Ez orixe. Ba-dakie euskeraz berba egiten, ingelesezko berba batzuk nastatuta baiño ez ba'da be. Gasteleraz be ba-dakie, baiña ez ondo.

Alberto'k bere aldetik auxe jakin-erazo gura dausku: «Australia laterri benetan kirol-duna da, baiña lanerako zaletasun aundiegirik ez dauke».